


# MAITÉ!



Aurra seaskachuan  
¡Lo lo! baserriyan,  
Leyuaren azpiyan  
Loria sasiyan,  
Eta chorikumiak  
Arbola zarrian,  
¡Gozo sentitzen ditut  
Nere biyotzian!  
. . . . .  
¿Ta etzaude, biyotza,  
Zu ñorenian?..  
Ai!... ala balitz ere,  
Bakartasunian..  
¡Zuk maité zazu beti!  
¡Maité ill artian!

ANTONIO ARZÁC.

---